

### OSOKO BILKURA 2021-09-27

**Organoa:** Udal Plenoa

**Izaera:** Ohikoa

**Deialdia:** Lehena

**Eguna:** 2021-09-27

**Ordua:** Hasiera 18:32etan.

Bukaera 19:05etan.

**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

#### **Bertaratuak:**

Alkatea: Iزارo Elorza Arregi andrea (EH Bildu)

#### **Zinegotziak:**

- .- Xabier Igartua Loidi jauna (EH Bildu)
- .- Anik Maitane Zubizarreta Arturo andrea (EH Bildu)
- .- Iñaki Olalde Altzelai jauna (Bildu)
- .- Maite Anton Leno andrea (EH Bildu)
- .- Iker Oñate Ayastuy jauna (EH Bildu)
- .- Susana Altuna Ugarte andrea (EH Bildu)
- .- Vicente Urrutia Elexpuru jauna (EH Bildu)
- .- Alaitz Kortabarria Igartua andrea (EH Bildu)
- .- Asier Iraeta Izagirre jauna (EH Bildu)
  
- .- Ainhoa Galdos Olazar andrea (EAJ-PNV)
- .- Andoni Altuna Uribe jauna (EAJ-PNV)
- .- Miren Amaia Erostarbe Letamendi andrea (EAJ-PNV)
- .- Jon Kepa Guerricagoitia Arrien jauna (EAJ-PNV)
- .- Nerea Altube Galdos andrea (EAJ-PNV)
- .- Angel Biain Peña jauna (EAJ-PNV)

Idazkaria: Iñigo Roldan Catalan jauna

Kontu-hartzailea: Paskual Elustondo Darpon jauna

#### **Ez da bertaratu:**

- .- Maria Jose Etxegoien Arzuaga andrea (EAJ-PNV)

#### **AZTERGAIAK**

1. Onartzea, hala badagokio, 2021-07-22ko ohiko osoko bilkuraren akta, (7.2021).
2. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Musika banda eta Oñatiko Udalaren arteko hitzarmena eta diru-laguntza izendun eta zuzena onartzea, Kulturako Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko uztailaren 20an.
3. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Hiri Antolaketarako Arauen aldaketa puntuala hasiera batean onartzea, Lurzoru Urbanizaezineko Babes Bereziko- eta Nekazaritza eta Abelazkuntzarako Zonetan erauzketa erabileraren inguruan, Hirigintzako Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko irailaren 6an.
4. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea zerrendatzen diren eskatzaileen obrak, Ogasun Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko irailaren 7an.
5. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñati.bonoak.eus - Oñatiko herritarrei zuzendutako diruz lagundutako erosketa bonoen oinarri arautzaileen eta

2021eko deialdiaren onarpena, Sozioekonomia eta turismo informazio batzordean diktaminatua 2021eko irailaren 15ean.

6. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Gure Bazterrak kultur elkartearen eskaera Erreusak egiteko lanak egiteko Olalan gunea erabiltzeko, Sozioekonomia eta turismo informazio batzordean diktaminatua 2021eko irailaren 15ean.
7. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Eskola Kirola eta Hezkuntza elkarte eta Oñatiko Udalaren arteko hitzarmena eta diru-laguntza izendun eta zuzena, Kirol Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko irailaren 13an.
8. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Gi-2630 eta Gi-3591 errepideen bidegurutzean Lezesarri auzorako oinezkoendako ibilbidea egokitzeko proiektua onura publikokotzat deklaratzeko eta desjabetze ondorioetarako ondasun eta eskubideen eta horien titularren zerrendari hasierako onespina ematea, Ingurumen Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko irailaren 16an.
9. Hala badagokio, presako gaiak.
10. Hala badagokio, larrialdi-mozioak.
11. Uztailaren 19tik irailaren 22a bitartean eman diren alkate dekretuen berri ematea, 784 zenbakitik 953 zenbakira.
12. Galderak eta eskaerak.

Akta honen parte da saioaren soinu-grabazioaren ondoriozko fitxategia. MP3 formatuko fitxategi bat da, Udaleko Zerbitzariaren saioko karpetan dagoena, osoko bilkuraren datarekin.

#### BILERA:

#### 1.- Onartzea, hala badagokio, 2021-07-22ko ohiko osoko bilkuraren akta, (7.2021).

Alkateak galdetu du ea Udalbatzako kideren batek oharren bat egin behar duen aurreko bilkurako aktari buruz. 2021eko uztailaren 22ko bilkura agiria irakurri eta aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartzea erabaki du.

2

#### 2.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Musika banda eta Oñatiko Udalaren arteko hitzarmena eta diru-laguntza izendun eta zuzena onartzea, Kulturako Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko uztailaren 20an.

Idazkariak Alkatearen proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

**Gaia:** MUSIKA BANDA ETA OÑATIKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA ETA DIRULAGUNTZA IZENDUN ETA ZUZENA.

2021eko uztailaren 20an egindako Kultura batzordearen akta, German Meabebasterretxea (Kultura Batzordeko idazkaria eta kultur teknikaria) sinatua. Honela dio:

*“Teknikariak, Oñatiko Udalak eta Oñatiko Musika Banda Elkarteak adosturiko hitzarmenaren testua aurkeztu du:*

*EAJ : Testuan zuzenketa batzuk egitea proposatzen dut. Hitz batzuk elkartuta agertzen dira testuan.*

*Teknikaria: formatu aldaketa egiterakoan sortu den arazo informatiko baten ondorioa da. Paperezko ereduari hitz hoiak ondo ageri dira.*

*EAJ: INOREN MATERIALAK ATALEAN, nire ustez komenigarria litzake autore eskubide hoiak suposatuko dutena zehaztea. Zuzendari aldaketak, kostuaren aldaketa ekarri dezake.*

*Teknikaria: Klausula horretan adierazi nahi duguna da, orain arte bezala autore eskubideek sortuko duten kostu ekonomikoa guk asumitzen dugula . Bandaren kontu izango da eskubideak eskatzea horrela dagokion lanetan.*

*EAJ : Banda gaztearen kontzertuak Santa Anan izango direla jartzen du.*

*Bildu : Bai horrela da.*

*EAJ: Banda nagusiaren denboraldiko kontzertuak ere bertan izango dira?*

*Bildu: Ez. Kiroldegiko pilotalekuan izango dira. Bandak horrela proposatu zuen.*

*EAJ: adineko jendeak arazoak izan ditzake, harmailetara igotzeko orduan . Hitzarmenean jasotzea komeni litzake.*

*Hitzarmenari baiezkoa ematen diote bi alderdiek.”*

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrek (22.2 a eta 28 artikulua) eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrek (14. Artikulua) ezarritakoa kontuan hartuta.

**38/2003. Legean** nabarmentzekoa da artikulua hau:

30.2 artikulua: *“Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitorzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiriak edo diru-laguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira.”*

Gainera **Ordenantza orokorraren 18.2 Artikulua** dio:

*“Diru-laguntza erregulatzeko oinarriek xedaturikoaz gain, diru-laguntza egiaztatzeko ondoko dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:*

*2) Urtean metatutako Udal diru-laguntzak 60.000 eurotik gorakoak direnean: Finantza egoerak aurkeztu behar dira (egoeraren balantzea eta galera eta irabazien kontua), enpresa eskudunak auditaturik, dagokion erregistro ofizialean behar bezala izena emanda, eta horietan aipatu behar dira gastuak eta diru sarrerak, erakundearen jardura globalarena nahiz udal dirulaguntzaren xede den ekintza edo ekintza berezi(ar)ena.*

*Halaber, diru-laguntza xede duten ekintzen azalpen memoria bat aurkeztu behar da, egin diren ekintzena, eta horrekin batera balorazio bat, lortu diren emaitzena.”*

**2/2016 Legea**, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, bere 17. Artikulua (20. Atalean) eskumen propioak ematen dizkie udalei honako esparru material hauetan:

*“Kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea.”*

**40/2015 Legea**, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena ikusita, eta bereziki, honako artikulua hauek nabarmendu behar dira:

*“-47. Artikulua. Definizioa eta hitzarmen motak.*

*2. Hitzarmenak dira ondorio juridikodun akordio batzuk, administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek edo unibertsitate publikoek beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin sinatuak, xede komun bat lortze aldera.*

*Ez dira hitzarmenak hartzen jarduketako protokolo orokorrak edo antzeko tresnak, baldin eta eduki orokorreko asmoen deklarazio hutsak badakartzate edo administrazioek eta alderdi sinatzaileek helburu komun batekin jarduteko duten borondatea azaltzen badute, betiere haien ondorioz ez bada konpromiso juridiko zehatz eta eskatzeko modukorik formalizatzen.*

*Hitzarmenek ezingo dute xedetzat hartu kontratuen berezko prestazioak. Xede hori hartuz gero, haien izaera eta araubide juridikoa sektore publikoko kontratuen legerian aurreikusita dagoenari lotu beharko zaizkio.”*

*-48. Artikulua.*

*3. Hitzarmenak sinatuz kudeaketa publikoaren efizientzia hobetu beharko da, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera erraztu, erabilgarritasun publikoko jarduerak egin daitezela lagundu, eta aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako legeria bete.*

*8. Alderdiek adostasuna eman behar dute burutzen dira hitzarmenak.*

50. artikulua. Hitzarmenak sinatzeko nahitaezko izapideak eta haien ondorioak.

*1. Autonomia-erkidegoetako legeriak aurreikus ditzakeen berezitasunak gorabehera, hitzarmenak justifikazio-memoria bat beharko du, zeinean aztertuko baitira hitzarmenaren premia eta egokitasuna,*

*eragin ekonomikoa, dena delako jardueraren kontratuz bestelako izaera, eta lege honetan aurreikusita dagoena betetzea.*

49. artikulua. Hitzarmenen edukia.

*h) Hitzarmenaren indarraldia, honako erregelak hauek kontuan hartuta:*

*1.a Hitzarmenek iraunaldi zehaztua izan beharko dute, gehienez ere lau urtekoa, non eta epe luzeagoa aurreikusten ez den arau bidez.*

*2.a Aurreko zenbakian aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea.”*

Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela. Partida zenbakia hau da: 1.0801.481.334.00.01 2021 (339), Musika Bandaren dirulaguntza.

Halaber, Gipuzkoako tokiko sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duen abenduaren 27ko **32/2018 Foru Dekretuak**, 3. Artikuluan 1 eta 2 ataletan honakoa xedatzen du:

*“1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. Artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.*

*2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratorritik diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”*

Gaia azterturik, eta Kultura batzordearen aldeko irizpena izanik, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

**Lehenengoa.**- Oñatiko Udalaren eta Oñatiko Musika Banda arteko lankidetzak-hitzarmena onartzea eta horretarako adostasuna ematea, espedientean dagoen uztaileko zirriborro dokumentuaren arabera. Hitzarmen honek Oñatiko Musika Banda elkarteari diru-laguntza izendun eta zuzena emateko hitzarmen arautzailea barne hartzen du. Diru-laguntza hori Oñatiko Udalaren 2021ko aurrekontu orokorretan dago jasota.

**Bigarrena.**- Hitzarmen honek 4 urteko iraupena izango du, eta 4 urteak igarotan, ondoriorik gabe geratuko da automatikoki, isilbidezko luzapenik gabe.

**Hirugarrena.**- Hitzarmen honek dakartzan ondorio ekonomikoak onartzea eta baita hurrengo urteetarako dagokion egokitzapen gastua.

2021erako 84.700€eko gastua onartzea, 1.0801.481.334.00.01 2021 (339), Musika Bandaren diru-laguntza diru-atalaren eta bere lotespen-mailaren kargura, kontuan hartuta diru-laguntza emateko ezinbestekoa dela kreditu egokia eta nahikoa egotea diru-laguntza emateko ebazpena emateko unean. Hurrengo urteetarako hitzarmenetik eratorritako betebeharrei erantzuteko behar den kreditua gorde eta gaitu beharko da.

**Laugarrena.**- Diru laguntza zuzen eta izenduna hau, Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean (DNS) argitaratzea erabakitzea.

**Bostgarrena.**- Kultur teknikaria izendatzea Oñatiko Udaleko arduradun, hitzarmen hau behar bezala bete eta garatzeko.

**Seigarrena.**- Hitzarmen hau Hitzarmenen Erregistroan inskribatzea, behar bezalako publizitatea emateko Gardentasunaren Atarian, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 55. Artikuluan oinarrituta eta, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1 b artikulua babesean.

**Zazpigarrena.**- Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.

**Zortzigarrena.-** Erabaki hau kontu-hartzaileari eta kultur teknikariari jakinaraztea.

**Bederatzigarrena.-** Alkateari ahalmena ematea hitzarmena sinatzeko.

---

Gaia aztertuta, eta Kultura batzordearen irizpena kontuan hartuz, eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamasei bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

**3.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Hiri Antolaketarako Arauen aldaketa puntuala hasiera batean onartzea, Lurzoru Urbanizaezineko Babes Bereziko- eta Nekazaritza eta Abelazkuntzarako Zonetan erauzketa erabileraren inguruan, Hirigintzako Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko irailaren 8an.**

Idazkariak Alkatetzaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena. Batzorde hori irailaren 8an eta ez 6an bildu zen, akats hori zuzentzen da bertan.

**Gaia:** Hiri Antolaketarako Arauen aldaketa puntuala hasiera batean onartzea, Lurzoru Urbanizaezineko Babes Bereziko- eta Nekazaritza eta Abelazkuntzarako Zonetan erauzketa erabileraren inguruan (242/2021/P05).

2021eko irailaren 8an egindako Hirigintza batzordearen akta, Iñaki Landa Azkoaga (Hirigintza Batzordeko idazkaria eta Udal arkitektoa) sinatua. Honela dio:

*“Oñatiko Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspena behin betiko onartu zuen Diputatuen Kontseiluak 2005eko apirilaren 12an eta Testu Bategina GAOn argitaratu zen 2006ko ekainaren 29an.*

*Aipatutako arauak onartzeko testuingurua eraldatu zen Aizkorri Aratzeko parke naturalaren izendapena eta erabilerak arautzeko instrumentuak onartzerakoan: Aizkorri-Aratz aldea Parke Natural deklaratu den, apirilaren 4ko, 76/2006 Dekretua eta Aizkorri-Aratz aldeko Natur Baliabideak Antolatzeko Plana onartzen duen, apirilaren 4koa, 75/2006 Dekretua, alegia. Gainera, Natura 2000 Sarean egokitzen da aipatutako espazioa.*

*Hori horrela izanik, Lurzoru Urbanizaezinean eragin zuzena dute aipatutako xedapenek eta kontrajarriak dira, neurri handi batean, espazio zehatz batzuen kontserbaziorako, tokiko habitatak bizirik jarraitzeko zein Lurzoru Urbanizaezinen bokaziorako.*

*Hori kontuan hartuta, erauzketa jarduerak (harrobiak, hain zuzen ere) Lurzoru Urbanizaezineko Babes Bereziko Nekazaritza eta Abelazkuntzarako eta Nekazaritza eta Abelazkuntzarako Zonetan garatzeko aukera ekiditea beharrezkotzat jo zuen Udalak, Kontserbazio Bereziko Eremuak dituen interes naturalistikoaren babeserako; flora, fauna eta habitat naturalak, alegia.*

*Horretarako, Lurzoru Urbanizaezineko Babes Bereziko Nekazaritza eta Abelazkuntzarako Zonen erabilera onargarrien inguruan, Hiri Antolaketako Arauen 11, 65 eta 74 artikuluen aldaketa behin-betiko onartzea erabaki zuen Osoko Bilkurak, 2018ko martxoaren 22an, aipatutako artikuluen idazketa berria honako izanik:*

- 11. artikulua. Zona eta sistema Orokorren erabilera arau orokorrak.*
- 4. Zona eta Sistema Orokorren erabilera erregimen orokorra.*
- C-4 Zona. Babes Bereziko Nekazaritza eta Abelazkuntzarako Eremua.*
- Erabilera nagusiak:*
  - \* Nekazaritza.*
  - \* Abelazkuntza.*
  - \* Basogintza.*

*Erauzketa erabilerak ezabatuko dira.*

*65. artikulutik 14. atala Erauzketak. Harrobia ezabatuko da.*

2.2.4 Ataleko (Babes Bereziko Nekazaritza eta Abelazkuntzarako Zonari Buruzko Arauak) 74. Artikulua (Baimendutako eraikinak):

“65. artikuluan erregulatutako eraikin guztiak baimenduko dira, artikulua horretan bertan jasotako baldintzetan betiere, honako hauek izan ezik: Interes publikoko zerbitzuak izan arren inguruan dauden baserri-auzuneen beharrek zuzenean lotu gabekoak, eta granjak. Arantzazuko harrobiaren ustiapena baimentzen da, bakarrik eta eskusiboki gaur egungo lurralde mugen barne eta Udal Plangintzarako Arau Ordezko hauen agiri grafikoan ageri den mugaketaren barne geratuko dena.”

Aipatutako Erabakiaren kontrako Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuen Aridos Aloña SL enpresak.

Aipatutako errekurtsoa onartzea erabaki zuen EAeko Auzitegi Nagusia Administrazioarekiko Auzien Salak 2020ko ekainaren 26ko 219/2020 epaiaren arabera, non, 21/2013 Legearen arabera, ingurumen-ebaluazio estrategikoari dagokion ingurumen-txosten estrategikoa tramitatu ez izana jasotzen den.

Hori horrela izanik, Hiri Antolaketako Arauen aldaketa puntuala bideratzeko aipatutako txostena egitea eskatu zitzaion Araudi SLP enpresari.

Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren zuzendariak Ingurumen-txosten estrategikoa eman zuen, 2021eko uztailaren 13ko Ebazpenaren arabera. Horren arabera, ez da aurreikusten aipatutako aldaketak kontrako eragin esanguratsurik izan dezakeenik ingurumenean, eta, hortaz, ez da ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar.

Bestalde, martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 3. artikulua arautzen du herritarren parte-hartzea lurralde eta hirigintza-plangintzaren izapidetzea. Horrela, Hiri- Antolamendurako Plan Orokorren idazketa prozesuan herritarren parte hartzea bermatzeko, partaidetza programa aurkeztu zen.

Hori kontuan hartuta, Lurzoru Urbanizazineko Babes Bereziko- eta Nekazaritza eta Abelazkuntzarako Zonetan erazketa erabileraren inguruan, Hiri Antolaketarako Arauen aldaketa puntualari hasiera ematea eta herritarrek parte hartzeko programa onartzea erabaki zuen Osoko Bilkurak, 2021eko uztailaren 22an.

Adierazi den bezala, aldaketa honen helburua da lurzoru urbanizazineko babes bereziko nekazaritza- eta abeltzaintza-eremutik erazketa-erabilerak kentzea, baita lurzoru urbanizazinean osoan harrobiaren lotutako eraikuntza-jarduketak kentzea ere. Era berean, Gomistegiko harrobia ustiatzeko aukera mantentzea da; gaur egungo lurralde-mugen barruan eta arau subsidiarioen dokumentazio grafikoan aurreikusitako mugen barruan bakarrik.

Gaia aztertu ondoren, Osoko Bilkurak aipatutako Hiri Antolaketako Arauen aldaketa puntualaren hasierako onarpena egitea eta lizentziak eteteko akordioa hartzea proposatu du Batzordeak. Aurretik, 2021eko uztailaren 22an onartutako partaidetza programa burutuko da eta Oñatiko udal plangintzako aholku kontseilua deituko da.

Hiri Antolaketako Arauen aldaketa jendurrean ikusgai jarriko da, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurraldean hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaratuz. Erabakia hila egongo da jendurrean, azken argitalpenetik kontaktzen hasita. Sektoreko eskumenak dituzten herri-administrazioei ere emango zaie hasierako onepenaren berri, ezagutu dezaten eta txostena egin dezaten.”

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 62.1 artikulua honako hau ezartzen du:

“1.- Plan orokorren edukia agiri hauetan formalizatuko da gutxienez:

a) Memoria informatiboa eta justifikatiboa. Plangintza-ahalmena baliatzeko beharrezko irizpen elementuak dakartzen informazio guztia jaso beharko du; zehazki, erabakiak hartzeko alternatibak

formulatzeko eta hautatzeko prozesuaren azalpena, herritarrek egindako alegazioen, iradokizunen eta erreklamazioen azterketa, eta aukeratutako soluzioen justifikazioa.

b) Ingurumen-kalteari buruzko aurreiazko txostena betetzearen memoria justifikatiboa. Memoria horretan, gainera, garapen eramangarriaren ikuspuntutik arrazoitu beharko da hautatutako antolamendua, eta lurzoruak planean aurreikusitakoa betetzeko duen hartze-gaitasuna ere kontuan izan.

c) Informazio-planoak.

d) Egiturazko antolamenduaren planoak.

e) Antolamendu xehatuaren planoak.

f) Ekonomiaren eta finantzen aldetik duen bideragarritasunaren azterketa.”

Halaber, lege horren **90. artikulua** 5. eta 6. Ataletan honako hau xedatzen du:

“ 5. Udalak hasierako onespina emango dio plan orokorrari, eta jendaurrean jarriko du, udalerriri dagokion lurralde historikoko aldizkarian eta lurraldean zabalkunde handiena duen egunkarian edo egunkarietan argitaratuz, azken argitalpenetik hilabeteko epean. Era berean, hasierako onarpena jakinaraziko zaie, jakinaren gainean egon daitezten eta txostena egin dezaten, eskumen sektorialak dituzten administrazio publikoei, eta Arabako udalen kasuan, baita udalerriko administrazio-batzarrei ere.

6. Jendurreko erakustaldiaren emaitzak ikusita, udalak behin-behingo onartuko du plan orokorra, bidezko iritzitako egokitzapenak eginda. Dena den, egokitzapen horiek hasieran aurreikusitako egiturazko antolamenduaren funtsa aldatzen badute, udalak hasierako onespina eman beharko dio berriz planari eta jendurreko erakustaldia irekiko du berriz, behin-behingo onartu aurretik.”

Gainera, **91. artikulua** dio:

“1.- Plan orokorrak behin betiko onartzeko eskumena udalei dagokie 7.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan, eta foru-aldundiei gainerakoetan; kasu bietan, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak txostena egin beharko du aurretiaz.

2. Plan orokorra udalak onartuko du behin-behingo eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari bidaliko dio. Batzordeak txostena egingo du, eta txostenak dioena loteslea izango da plan orokorra lurralde-antolamenduko tresnei egokitzeari dagokionez eta, aplikagarri den araudiaren arabera eta onartutako udalez gaineko proiektuen arabera, Estatuko, Autonomia Erkidegoko edo lurraldeko administrazioaren eskumeneko diren alderdi sektorial guztiei egokitzeari dagokionez.

3.- Batzordeak plana jaso eta hiru hilabeteko epean txostena eman ez badu, aurrera egin ahal izango da izapideekin. Plan orokor bat ezin izango da behin betiko onartu, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak txostena eman ez badu edo hori egiteko epea amaitu ez bada. Manu hau bete gabe onartzen diren plan orokorrak erabat deusezak izango dira. Alabaina, txostena epez kanpo ematen bada, ez da nahitaez kontuan hartuko plana behin betiko onartzeko orduan.”

Udaleko Arkitektoaren txostena dago, 2021eko irailaren 6koa.

Udaleko idazkariaren 17/2021 txostena, irailaren 22koa, dago espedientean.

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 47. artikulua honako hau xedatzen du:

“2. Korporazioetako legezko kide-kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa behar da honako gai hauetan erabakiak hartzeko:

LL) Korporazioak hirigintza-legerian aurreikusitako plangintza orokorreko tresnak izapidetzean hartu beharreko erabakiak.”

Azaldutakoagatik, Hirigintza batzordearen oniritziarekin, Osoko bilkurari honako hau proposatzen zaio:

**Lehenengoa.**- Hiri Antolaketarako Arauen aldaketa puntuala hasiera batean onartzea, Lurzoru Urbanizazineko Babes Bereziko- eta Nekazaritza eta Abelazkuntzarako Zonetan erauzketa erabileraren inguruan, 2021eko martxoko dokumentuaren arabera.

**Bigarrena.**- Erabaki honekin batera, espedientea bidaliko zaio sektoreko eskumenak dituzten administrazioei, ezagutu ditzaten eta dagokion txostena egin dezaten.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau jendaurrean jartzea, gutxienez hilabetez, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurralde historikoan hedadura gehien duen egunkarian argitaratuta.

**Laugarrena.-** 2/2006 Legearen 85. artikulua babesean, onespén, baimen eta lizentzia mota guztiak etetea, aurreikusitako zehaztapen berriek indarrean dagoen hirigintza-araubidea aldatzea dakarten eremuetan.

---

Gaia aztertuta, eta Hirigintza Informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamasei bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

**4.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea zerrendatzen diren eskatzaileen obrak, Ogasun Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko irailaren 7an.**

Idazkariak Alkatearen proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena.

**Gaia:** Interes bereziko obrak.

2021eko irailaren 7an egindako Ogasun batzordean aldeko irizpena jaso zuen interes bereziko obratzat hartzea honako obrak, Ogasun Batzordeko idazkaria eta Kontu-hartzailea (Paskual Elustondo Darpon), ziurtatzen duenez:

Hainbat herritar eta erakundek eskatu dute beren eraikinetan obra-baimenak. Aldi berean eskatu dute, 2021eko Zerga Ordenantzak xedatutakoaren arabera Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zergaren hoberia aplikatu ahal izateko, egin beharreko obrak interes berezikotzat edo udal onurakoak izenda daitezela.

8

a) 2020ko Udal Zerga Ordenantzak EIOZen hobarien 3.puntuan zera dio:  
“3.-15/1989 Foru Arauren “Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga” V. Kapituluaren 5.a artikulua xedatutakoaren arabera, 100eko 95era bitarteko hoberia, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.”

Gaia azterturik, eta Ogasun batzordearen aldeko irizpena izanik, eta kontu-hartzailearen oniritziarekin, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

**LEHENENGOA.-** Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea ondoren zerrendatzen diren eskatzaileen obrak. Ondorioz, zerrendan bertan adierazten den hoberia aplikatuko litzaieke:

**BIGARRENA.-** Erabaki hau kontu-hartzaileari eta interesdunei jakinaraztea.

---

Gaia aztertuta, eta Ogasun batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamasei bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.



**5.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñati.bonoak.eus - Oñatiko herritarrei zuzendutako diruz lagundutako erosketa bonoen oinarri arautzaileen eta 2021eko deialdiaren onarpena, Sozioekonomia eta turismo informazio batzordean diktaminatua 2021eko irailaren 15ean.**

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

**Gaia:** Oñati.bonoak.eus - Oñatiko herritarrei zuzendutako diruz lagundutako erosketa bonoen oinarri arautzaileen eta 2021eko deialdiaren onarpena.

2021eko irailaren 15ean egindako Sozioekonomia eta turismo batzordearen akta, Unai Kortabarria Errasti jauna, Enplegu teknikaria eta batzorde informatiboaren idazkariak sinatua. Honela dio:

*“Herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektorean kontsumitzeak duen garrantziaz herritarrak sentsibilizatzeko eta tokiko saltokietan kontsumoa sustatzeko helburuarekin Oñati.bonoak.eus ekimenaren kanpaina berri martxan jartzeko proposamena egin da batzordean.*

*Helburu hori lortzeko Oñatiko herritarrei zuzendutako diruz lagundutako erosketa bonuen kanpaina berri bat jarriko da martxan eta Oñati.bonoak.eus web plataforma baliatuko da kanpaina hori kudeatzeko.*

*Oñati.bonoak.eus bidezko erosketa bonuen dirulaguntzak arautzeko oinarriak proposatu dira batzordean:*

*Oñati.bonoak.eus - Oñatiko herritarrentzako diruz lagundutako erosketa bonuen oinarri arautzaileak.*

**1. Ekimenaren helburua**

*Ekimen honen helburua Oñatiko herritarrei zuzendutako diruz lagundutako erosketa bonuen bidez merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektorean kontsumoa sustatzea da, udalerriko hiri-ekonomia suspertuz eta tokiko establezimenduetan kontsumo kontzientea bultzatuz.*

**2. Oñati.bonoak.eus web aplikazioa eta alta prozesua.**

*Erosketa bonuak Oñati.bonoak.eus web aplikazioaren bidez kudeatuko dira.*

*Herritarrek online sistema bidez bonuak erosteko, alta eman beharko dute Oñati.bonoak.eus web aplikazioan “Hasi saioa” aukeratik.*

*Bestalde, Oñati.bonoak.eus bonu kanpainen lehengo aldiz parte hartzen duten establezimendu berriek ere alta eman beharko dute web aplikazioan, “Komertzioa sortu” aukeratik.*

**3. Oñati.bonoak.eus ekimenera atxikitzeko establezimenduek bete beharreko baldintzak**

□ 15 langile baino gutxiago dituzten Oñatiko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektorekoak izatea.  
□ Ekonomia Jardueren Gaineko Zergan alta emanda egotea Oñatin eta zerga hori ordaintzetik salbuetsita egotea, ekonomia-jardueren gaineko zergaren testu bategina onartzen duen 1/1993 Foru Dekretu Arauemailearen 5.1.b) eta c) artikuluetan xedatutakoaren arabera. Oñatiko Udalak ofizioz egiaztatuko du dagokion establezimenduaren Ekonomia Jardueren Gaineko Zergaren egoera.

□ Jarduera ekonomikoa jendeari irekitako lokal batean garatzea, Oñatiko udal-mugartearen mugen barruan.

□ Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergaren (JEZ) 1. eranskinean jasotako multzo, talde edo epigraferen batean alta emanda egotea.

**4. Establezimenduak ekimenera atxikitzea.**

*Kanpaina honetara atxikitu nahi duten establezimenduek 2. eranskineko atxikimendu orria bete eta bonoak@onati.eus helbide elektronikora bidali beharko dute.*

*Horretaz gain, bonu kanpainen lehengo aldiz parte hartzen duten establezimendu berriek alta eman beharko dute Oñati.bonoak.eus web aplikazioan, “Komertzioa sortu?” atala erabilia eta behin alta emandakoan komertzioaren profila editatu beharko dute.*

*Establezimendu bakoitzak bere ordainketa-pasabidearen bitartez jasoko ditu online sistema bidezko bonuen ordainketak. Horretarako, establezimendu bakoitzak bere TPV Birtuala konfiguratu beharko du Oñati.bonoak.eus web aplikazioan.*

Oñatiko Udalak egiaztatuko ditu ekimen honetan parte hartzeko establezimenduek bete behar dituzten baldintzak eta baliozkotuko ditu deskontu kanpainarako atxikimenduak. Udalak beharrezkoa iritziz gero, baldintzak betetzen direla egiztatzeko dokumentazio gehigarria eskatu ahal izango du. Establezimenduak ekimen honi eta abian jartzen diren deskontu-kanpainei atxikitzeak Udalak ezarritako baldintzak eta prozedurak onartzea ekarriko du.

#### 5. Dirulaguntzen onuradunak

Oñatin erroldatutako 16 urtetik gorako pertsonak izango dira diruz lagundutako erosketa bonuen onuradunak.

#### 6. Dirulaguntzen zenbatekoak eta muga.

Dirulaguntzen zenbatekoei dagokionez, erosketa-bonuetan %20ko deskontua aplikatuko da.

Bonu kanpaina honetarako muga hauek ezarri dira:

- Pertsona bakoitzeko muga diruz lagundutako bonuak erosteko: 75€.
- Establezimendu bakoitzeko fakturazio muga: 7.500€.

#### 7. Bonuen erosketa.

Bonuak eskuratzeko bi aukera egongo dira; online, Oñati.bonoak.eus web aplikazio bidez. Edota offline, kanpainara atxikitako establezimenduetan.

##### a) Bonuak online erosteko eman beharreko pausoak:

1. Oñati.bonoak.eus web aplikazioan alta eman.
2. Erosketa egingo den establezimendua aukeratu.
3. Bonuaren zenbatekoa aukeratu.
4. Banku txartel bidez erosketa egin.

Bonua erositakoan, PDF formatuko fitxategi bat deskargatu ahal da Oñati.bonoak.eus web aplikaziotik. Fitxategi hau eroslearen emailera ere bidaliko da, eta Oñati.bonoak.euseko erabiltzaile kontuan ere eskuragarri egongo da.

Bonuaren salerosketa operazioaren komisioa establezimendu bakoitzak hartuko du bere gain.

##### b) Kanpainari atxikitako establezimenduen bitartez bonuak erosteko eman beharreko pausoak:

1. Erosketa egingo den establezimendura zuzendu.
2. Erosi nahi den produktua edo zerbitzua aukeratu.
3. Saltokiko saltzailearen bitartez, Oñati.bonoa.eus web aplikazioan bonuaren zenbatekoa aukeratu.
4. Bonua ordaindu.

Bonuak offline erosten direnean, ordainketa establezimenduan bertan egingo da.

Bonuek informazio hau izango dute:

- QR kodea, erosketa-prozesuaren segurtasuna bermatzeko.
- Eroslearen izen-abizenak eta NAN zenbakia.
- Erosketa data eta ordua, zenbatekoa eta aplikatutako deskontua.
- Bonuaren iraugitze data.

#### 8. Bonuak establezimenduetan erabiltzea.

Bonuak deialdian zehaztutako epeetan kontsumitu beharko dira, kanpainara atxikitako establezimenduetan. Epe hori igaro ondoren bonuek ez dute baliorik izango.

Bonuak ezingo dira dirutan trukatu eta ez da diru itzulketarik egingo. Diruz lagundutako bonuak erosteko pertsona bakoitzeko ezarri den muga gainditzen denean ez da deskonturik aplikatuko.

Bonua ezingo da frakzioetan banatu eta erosketa-tiketen edo fakturen zenbatekoen baturek bonuaren balio bera edota handiagoa izan beharko dute. Erosketen zenbatekoak bonuen zenbatekoa baino txikiagoak baldin badira, diferentzia ez da eskudirutan itzuliko.

Erosketa bonuak ezin izango dira erabili alkohola, tabakoa, loteria edo apustuak eta ibilgailuen erregaia bezalako produktuak erosteko.

#### 9. Bonuen zuriketa.

Establezimenduek bonu bakoitzari dagokion diruz lagundutako portzentajea jasotzeko, lehenik eta behin herritarrak bonua kontsumitu beharko du eta ondoren establezimenduak bonu horri dagokion erosketa tiketa edo faktura Oñati.bonoak.eus web aplikaziora igo.

Bonuak justifikatzeko jarraitu beharreko prozedura honako hau izango da:

1. Oñati.bonoak.eus web aplikazioan bonua identifikatu, QR kodea eskaneatuta edota bilaketa aukera erabilita.
2. Erosketa tiketari edo fakturari argazkia atera.

3. Bonuari dagokion erosketatik edo fakturaren argazkia web aplikaziora igo.

Oñatiko Udala establezimenduek justifikatutako bonuen erosketatik edo fakturak egiaztatzen joango da eta aldiro-aldiro egingo ditu banku transferentzia bitartez justifikatutako bonuen ordainketak.

Bonuen justifikazioa ontzat emateko tiketari edo fakturari ateratako argazkia irakurgarria izan beharko da.

Bonuen zuriaketa aurkezteko epea deialdian zehaztuko da.

1. ERANSKINA: OÑATI.BONOAK.EUS EKIMENERA ATXIKITZEKO ONARTUTAKO EKONOMIA JARDUEREN GAINEKO ZERGAKO MULTZO ETA EPIGRAFEAK

1. SEKZIOA. ENPRESA JARDUERAK

Multzoa Deskribapena

65 Elikagaiak ez diren ekoizkin industrialen txikizkako salmenta, establezimendu finkoetan Ez onartuak: Farmaziak, eta erregai, karburante eta lubrikanteen salmenta

67 Elikagaien zerbitzua

68 Ostatu zerbitzua

97 Zerbitzu pertsonalak

Salbuespenak Salbuespen gisa, pertsonen zuzendutako produktuak eta zerbitzuak eskaintzen dituzten eta aurrekoen antzekoak diren enpresa eta profesionalen beste jarduera batzuk. Adibidez: artisautza produktuen txikizkako salmenta, oinarritzko elikagaiak ez diren produktuen salmenta,...

Dirulaguntzen oinarriak eta deialdiaren xehetasunak Sozioekonomia eta Turismo batzordean azaldu ostean, onartzeko prozedurari hasiera ematea erabaki da eta honako erabaki proposamena egiten dio Osoko Bilkurari:

LEHENGOA.- Oñati.bonoak.eus - Oñatiko herritarrentzako diruz lagundutako erosketabonuen oinarri arautzaileak onartzea.

BIGARRENA.- 2021eko deialdia onartzea eta dirulaguntza hauek finantzatzeko guztira 30.000€ko gastua baimentzea, udal aurrekontuen 1.1000.480.241.03.01 diru-ataletik eta bere lotespen mailatik.

HIRUGARRENA.- Onartzea aipatutako deialdira loturiko epeak:

- Herritarrek bonuak erosteko epea: 2021eko azaroak 30
- Herritarrek bonuak kontsumitzeko epea: 2021eko abenduak 3
- Establezimenduek bonuen zuriaketa aurkezteko epea: 2021eko abenduak 17.

LAUGARRENA.- Oinarriak eta deialdia indarrean jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunetik aurrera.”

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. Legean nabarmentzekoak dira artikulua hauek:

30.2 artikulua: “Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitorzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiria edo dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira.”

34.3 artikulua: “Onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da dirulaguntza, dirulaguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera.

Justifikaziorik ez badago edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, diru-laguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da.”

Gainera, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, bere **3. Artikuluan 1 eta 2** ataletan honakoa xedatzen du:

*“1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.*

*2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratoritzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”*

Jasota dago espedientean kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Azaldutakoagatik, eta Sozioekonomia eta Turismo Batzordearen onetsiarekin, Osoko Bilkurari honako hau proposatzen zaio:

**LEHENENGOA.**- Oñati.bonoak.eus - Oñatiko herritarrentzako diruz lagundutako erosketa-bonuen oinarri arautzaileak onartzea.

**BIGARRENA.**- 2021eko deialdia onartzea eta dirulaguntza hauek finantzatzeko guztira 30.000€ko gastua baimentzea, udal aurrekontuen 1.1000.480.241.03.01 diru-ataletik eta bere lotespen mailatik.

**HIRUGARRENA.**- Onartzea aipatutako deialdiri loturiko epeak:

- Herritarrek bonuak erosteko epea: 2021eko azaroak 30
- Herritarrek bonuak kontsumitzeko epea: 2021eko abenduak 3
- Establezimenduek bonuen zuriketa aurkezteko epea: 2021eko abenduak 17.

**LAUGARRENA.**- Oinarriak eta deialdia indarrean jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunetik aurrera, behin diru-laguntzen datu-base nazionalean argitaratuta.

**BOSTGARRENA.**- Deialdi honen iragarkia Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean (DNS) argitaratzea.

**SEIGARRENA.**- Erabaki hau kontu-hartzaileari eta Sozioekonomia teknikariari jakinaraztea.

---

Gaia aztertuta, eta Sozioekonomia eta turismo Informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamasei bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

**6.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Gure Bazterrak kultur elkartearen eskaera Erreusak egitasmoko lanak egiteko Olalan gunea erabiltzeko, Sozioekonomia eta turismo informazio batzordean diktaminatua 2021eko irailaren 15ean.**

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: Gure Bazterrak kultur elkartearen eskaera Erreusak egitasmoko lanak egiteko Olalan gunea erabiltzeko.

2021eko irailaren 15ean egindako Sozioekonomia eta Turismo batzordearen akta, Unai Kortabarria Errasti, Oñatiko Sozioekonomia Saileko teknikariak sinatua. Honela dio:

*“Erreusak egitasmoak Oñatiko ondare etnografikoaren bilduma osatzeko helburua du, garai bateko objektuak identifikatu, katalogatu eta gizarteratzeaz gain, galtzear dagoen bizimoduaren testigantzak jasoz.*

*Gure Bazterrak kultur elkarteak kudeatzen ari da egitasmoa eta berau gauzatzeko lankidetzak hitzarmena sinatu zuten Oñatiko Udalak eta elkarteak apirilean.*

*Proiektuaren landa lana uztaila eta abuztuan egin da eta irailetik urte amaiera arte lanaren katalogazio faseari ekingo zaio. Katalogazio faseko lanak egiteko espazio baten beharra dauka elkarteak. Hori dela eta, Arantzazu Sagarzazu Sacristanek, Gure Bazterrak kultur elkartearen izenean, eskaera egin du Olalan guneko bulegoan 2 lanpostu erabiltzeko, 2022ko urtarrilaren 1erarte.*

*Olalan gunearen araudia eta bertan kokatzeko bete beharreko baldintzak kasu honetan betetzen ez diren arren, Gure Bazterrak elkartearen eskaera salbuespen izaeraz onartu eta Erreusak egitasmoko katalogazio lanak amaitu bitartean espazioa uztea proposatu da batzordean.*

*Erabilera baldintzei dagokienez, Gure Bazterrak kultur elkarteak egun osoko ordutegian erabiliko du espazioa eta erabilera horregatik ez du alokairu preziorik ordainduko. Hala eta guztiz ere, CoWork Gunearen araudiko 10. Artikuluan zehazten diren gainontzeko betebeharrak bereziak betetzeko konpromesua hartuko du (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala. 2017ko urriaren 20a, ostirala. 201 zb.)*

*Gaia aztertuta beraz, Sozioekonomia eta Turismo batzordeak ondorengo erabaki proposamena egiten dio Tokiko Gobernu Batzordeari:*

**LEHENGOA.-** *Arantzazu Sagarzazu Sacristanek, Gure Bazterrak kultur elkartearen izenean egindako eskaera onartzea eta Olalan guneko bulegoan 2 lanpostu erabiltzeko baimena ematea, Erreusak egitasmoko lanak amaitu bitartean.*

**BIGARRENA.-** *Erabaki hau interesdunari jakinaraztea.”*

Bidaurreta Dorreko Cowork gunearen araudia 2017ko urriaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (201. zenbakia). Bere 4. Artikuluan honako hau xedatzen da:

*“Erabiltzaile bati egokitzen zaion espazioa pertsonala izango da eta ezingo da beste pertsona bati transferitu. Oñatiko Udalak giltza bat emango dio erabiltzaile bakoitzari eta giltza hau ezingo da hirugarren pertsoneri utzi Sozioekonomia sailak espresuki baimentzen ez badu.*

*-CoWork gunea erabiltzeko eskaerak araudi honen 6. Artikuluan ezarritako balioespen-irizpideen arabera aztertu eta ebaluatuko ditu Oñatiko Udaleko Sozioekonomia Batzordeak. Behin aztertuta eta ebaluatuta, Sozioekonomia Batzordearen irizpenarekin batera, Oñatiko Udaleko Osoko Bilkurara helaraziko dira berari buruz erabakia har dezan.”*

Gaia azterturik, eta Sozioekonomia eta Turismo batzordearen aldeko irizpena izanik, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

**LEHENENGOA.-** *Arantzazu Sagarzazu Sacristanek, Gure Bazterrak kultur elkartearen izenean egindako eskaera onartzea eta Olalan guneko bulegoan 2 lanpostu erabiltzeko baimena ematea, Erreusak egitasmoko lanak amaitu bitartean.*

**BIGARRENA.-** *Erabakia interesdunari eta Sozioekonomia teknikariari jakinaraztea.*

**HIRUGARRENA.-** *Gure Bazterrak kultur elkarteak egun osoko ordutegian erabiliko du espazioa eta erabilera horregatik ez du alokairu preziorik ordainduko. Hala ere, interesdunak CoWork Gunearen araudiko 10. Artikuluan zehazten diren gainontzeko betebeharrak bereziak bete beharko ditu.*

---

Gaia aztertuta, eta Sozioekonomia eta turismo Informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamasei bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

**7.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Eskola Kirola eta Hezkuntza elkarteak eta Oñatiko Udalaren arteko hitzarmena eta diru-laguntza izendun eta zuzena, Kirol Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko irailaren 13an.**

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena. Adierazi da akats bat dagoela proposamena egiterakoan, gastua 26.265€koa da, ez 96.624,77€koa. Momentuan bertan akats hori zuzentzen da:

**Gaia:** Oñatiko Eskola Kirola eta Hezkuntza elkarteak eta Oñatiko Udalaren arteko hitzarmena eta diru-laguntza izendun eta zuzena.

Oskar Carrascal Gonzalez, Kirol Teknikaria eta Kirol Batzordearen idazkaria, ziurtatzen du 2021eko irailaren 9ko datan Kirol Batzordeak honako **DIKTAMENA** eman zuela:

2021. urtean Udala eta elkartearen arteko lankidetzari jarraipena ematea eta dagokion lankidetzaren hitzarmena sinatzea.

Udala eta kirol elkarteak ordezkariek bi entitateen arteko lankidetzari jarraipena ematea adostu dute, elkarteak, udalaren laguntzarekin, interes publikoko kirol egitasmoak sustatzen jarrai ditzan. Horrela bada, Udal kirol batzordeak honakoa onartu du:

**Lehena.- Xedea**

Elkarteak zuzenean kontratatutako langileen egiturari eustea eta, hala badagokio, begiraleen eta koordinazio pedagogikoaren zerbitzuak kontratatzea izango da diru laguntza izendunaren helburua.

**Bigarrena.- Konpromisoa**

- 1.- Udalak eta Elkarteak elkarrekin lan egiteko konpromisoa hartu dute, Oñatiko Eskola Kirola indarreko araudiaren esparruan garatzeko.
- 2.- Udalak eta Elkarteak urtero adostuko dute Oñatiko Eskola Kirolaren programa.
- 3.- Udalak eta Elkarteak Oñatiko Eskola Kirola proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa bermatuko dute.

Konpromiso horiekin aurrera egiteko entitate bakoitzak eginkizun zehatzak burutu beharko ditu hitzarmenean indarrean dagoen bitartean. Eginkizun horiek lankidetzaren hitzarmenean betebeharrak bezala jasotzen dira dagokien ataletan.

**Hirugarrena.- Finantziarioa**

- 1.- Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero ematen duen diru laguntza osoa emango dio Elkarteari, "Eskola-kirolaren tokiko egituretarako" eranskinaren bidez.
- 2.- Udalak diru laguntza izendun bat zuzkituko du urtero Elkarteari, lankidetzaren hitzarmena indarrean dagoen bitartean (Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, bere 28. Artikulua), aipatu zuzkidura ez izatea baldintza etentzailea izango delarik. Udal diru laguntza bateragarria izango da beste laguntza publiko eta pribatu batzuekin, beti ere, lortzen diren sarrera guztiek ezingo dutelarik jardueren kostua gainditu. Dirulaguntza zuzkidura hitzarmenari Eranskin gisa erantsiko zaio, indarrean dagoen bitartean.
- 3.- Urteko 26.265 € euroko diru-laguntza izendun eta zuzena ematea adostu du batzordeak.
- 4.- Urteko diru laguntza izenduna bi zatitan ordainduko da:
  - Diru laguntzaren % 60, urtarrilaren 31 baino lehen.
  - Diru laguntzaren % 40, urriaren 31 baino lehen, aldezturik memoria tekniko eta memoria ekonomikoa aurkeztuta.

**2/2016 Legea**, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, bere 17. Artikuluak (19. Atalean) eskumen proiektuak ematen dizkie udalei honako esparru material hauetan:

*“Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea.”*

**14/1998 Legea**, ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena, bere 56. Artikuluak dio:

*“1.- Eskola-garaian egiten den kirola, funtsean, ikastetxeen bitartez egituratuko da kirol klub eta elkarteetako ikasleen guraso-elkarteen lankidetzak aktiboarekin.*

*2.- Kirol-federazioak, funtsean, laguntza teknikoak emateaz arduratuko dira eta horrelako programak antolatzeke eta aurrera eramateko laguntza emango dute.*

*3.- Udalak elkarlanean ariko dira ikastetxeekin eta foru-aldundiekin eskola-kirolerako programak egoki garatzeko. Horretarako, batipat, udalaren kirol-ekipamenduak erabiltzen utziko dute.”*

Aurreko legeak **125/2008 Dekretua**, uztailaren 1ekoa, Eskolako Kirolari buruzkoak garatzen du.

Hitzarmenaren arduraduna umeeekin lan egiten duten langile eta begirale guztiak sexu-izaerako delituen ziurtagiria dutela egiaztatu beharko du.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak (22.2 a eta 28 artikulua) eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak (14. Artikuluak) ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. Legean nabarmentzekoa da artikulua hau:

30.2 artikulua: *“Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiria edo diru-laguntzaren xedea bete dela egiaztatzeke balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira.”*

Gainera Ordenantza orokorraren 18.2 Artikuluak dio:

*“Diru-laguntza erregulatzeke oinarriek xedaturikoaz gain, diru-laguntza egiaztatzeke ondoko dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:*

*a) Urtean metatutako Udal diru-laguntzak 60.000 eurotik gorakoak direnean: Finantza egoerak aurkeztu behar dira (egoeraren balantzea eta galera eta irabazien kontua), enpresa eskudunak auditaturik, dagokion erregistro ofizialean behar bezala izena emanda, eta horietan aipatu behar dira gastuak eta diru sarrerak, erakundearen jardura globalarena nahiz udal dirulaguntzaren xede den ekintza edo ekintza berezi(ar)ena.*

*Halaber, diru-laguntza xede duten ekintzen azalpen memoria bat aurkeztu behar da, egin diren ekintzena, eta horrekin batera balorazio bat, lortu diren emaitzena.”*

Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela. Partida zenbakiak hauek dira: 1.0700.480.341.00.03 2021(278), “Eskola Kirolari dirulaguntza”

Halaber, Gipuzkoako tokiko sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duen abenduaren 27ko 32/2018 Foru Dekretuak, 3. artikuluan 1 eta 2 ataletan honakoa xedatzen du:

*“1. Tokiko sektore publikoaren jardura ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.*

*2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratorritzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”*

Gaia azterturik, eta Kirol batzordearen aldeko irizpena izanik, osoko bilkurari honako hau proposatzen zaio:

**Lehenengoa.**- Oñatiko Udalaren eta Oñatiko Eskola Kirola eta Hezkuntza Elkartearen arteko lankidetzahitzarmena onartzea eta horretarako adostasuna ematea.

**Bigarrena.-** Hitzarmen honek, urtebeteko iraupena izango du eta gehienez lau urtera arte luzatu ahal izango da, eta ezin izango da 4 urte baino gehiago luzatu. Epe hori igarotakoan, ondorioz gabe geratuko da automatikoki, isilbidezko luzapenik gabe.

**Hirugarrena.-** Rosa Lasagabaster izendatzea Oñatiko Udaleko arduradun, hitzarmen hau behar bezala bete eta garatzeko.

**Laugarrena.-** Hitzarmen hau Hitzarmenen Erregistroan inskribatzea, behar bezalako publizitatea emateko Gardentasunaren Atarian, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 55. artikuluan oinarrituta eta, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1 b artikulua babesean.

**Bostgarrena.-** Eskola Kirola elkarteari diru-laguntza izendun eta zuzena emateko hitzarmen arautzailea onartzea. Diru-laguntza hori Oñatiko Udalaren 2021ko aurrekontu orokorretan dago jasota.

**Seigarrena.-** Hitzarmen honek dakartzan ondorio ekonomikoak onartzea eta baita hurrengo urteetarako dagokion egokitzapen gastua.

2021erako 26.265€ko gastua onartzea, 1.0700.480. 341.00.03 2021(278), “Eskola Kirolari dirulaguntza” diru-atalaren eta bere lotespen-mailaren kargura, kontuan hartuta diru-laguntza emateko ezinbestekoa dela kreditu egokia eta nahikoa egotea diru-laguntza emateko ebazpena emateko unean. Hurrengo urteetarako hitzarmenetik eratorritako betebeharrei erantzuteko behar den kreditua gorde eta gaitu beharko da.

**Zazpigarrena.-** Diru-laguntza izendun eta zuzen hau, Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean (DNS) argitaratzea erabakitzea.

**Zortzigarrena.-** Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.

**Bederatzigarrena.-** Erabaki hau kontu-hartzaileari eta kirol teknikariari jakinaraztea.

16

---

Gaia aztertuta, eta Kirol batzordearen irizpena kontuan hartuz, eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamasei bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

**8. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Gi-2630 eta Gi-3591 errepideen bidegurutzean Lezesarri auzorako oinezkoendako ibilbidea egokitzeko proiektua onura publikokotzat deklaratzeko eta desjabetze ondorioetarako ondasun eta eskubideen eta horien titularren zerrendari hasierako onespina ematea, Zerbitzuak eta Landa Garapen Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko irailaren 16an.**

Idazkariak Alkatearen proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

*AITOR GERENABARRENA OSA, Oñatiko Udaleko Nekazaritza-Auzoak eta Ingurumen Teknikaria naizen aldetik, honako hau EGIAZTATZEN DUT:*

*2021eko irailaren 16an, Zerbitzuak eta Landa Garapen batzordeak ondorengo erabakia hartu zuela:*

*1. Gi-2630 eta Gi-3591 errepideen bidegurutzean Lezesarri auzorako oinezkoendako ibilbidea egokitzeko proiektua onura publikokotzat deklaratzeko eta desjabetze ondorioetarako ondasun eta eskubideen eta horien titularren zerrendari hasierako onespina ematea (1000/esp)*

*2015eko martxoaren 12an Udal Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran, besteak beste, Lezesarri auzora sartzeko bidegurutzean irisgarritasuna eta trafikoaren kudeaketa hobetzeko aurreproiektua egitea erabaki zuen, Sestra ingeniariak idatzitakoa. Aurreproiektuak, Lezesarri auzoak egindako eskaerei jarraituta egin zen eta honako 3 arazoei soluzio emateko idatzi zen: auzoko gune*



nagusira oinez iristeko aukera izatea, Arantzazutik behera datozen ibilgailuen abiadura mugatzea eta Azkoagain futbol-zelai inguruko aparkaleku arazoari irtenbide bat ematea.

Gi-3591, Gi-2630 errepideen eta Arantzatzu Ama kalearen arteko elkargunean ez dago oinezkoentzako eta ibilgailuentzako trafikoen antolamendu eta bereizketarik gaur egun. Alde batetik, Azkoagaineko kirol instalakuntzetara Arantzazuko Ama kaletik oinez iristea badago, ez ordea, Lezesarri auzoan San Esteban ermita inguruko baserrietara. Oinezkoentzako ibilbiderik ez dagoenez, errepideetako galtzadaren ertzak okupatu behar dituzte oinezkoek. Bestalde, Arantzazutik behera datozen ibilgailuak gehiegizko abiaduran ailegatzen dira Gi-2630 eta Gi-3591 errepideen bidegurutzera, bertako trafikoa arrisku egoera sortuz, batez ere, futbol partidu garaietan. Izan ere, bertaratzen direnek errepidearen ertzetan aparkatzen dute, eta galtzadatik igarotzen dira, istripuak gertatzeko arrisku nabarmenarekin.

Oinezkoentzako ibilbide seguruak egokitzeko (Lezesarri auzorako sarbidea eta kirol-instalazioetarako sarbidea), baita Gi-3591 errepidetik igarotzen den zirkulazioa lasaitzeko eta Gi-3591 errepidearen eta Ama Arantzatzuko kalearen arteko elkargunea berrantolatzeko Oñatiko Udalak horrela eskatuta Sestra ingeniariak exekuzio proiektua aurkeztu du. Aipatutako proiektua 2015ean landutako aurreproiektuaren zati bat da, non, errepideen arteko "T" formako bidegurutzera biribilgune batez ordezkatzeko aurreikusten zen. Aurreproiektu hori Gipuzkoako Foru Aldundiko errepide sailarekin alderatutakoa da.

Aurkezten den exekuzio proiektuan oinezkoentzako ibilbide bat ezartzen da. Errepidean behera abiatuta, Urrintxo jatetxearen aparkalekurako sarbidetik futbol-zelaira sartzeko espaloiarekin lotzeko. Oinezkoentzako ibilbide hori bi zatitan banatu da:

Lehen zatia (Urrintxotik galtzada gurutzatu arte) Gi-3591 errepidearen eskuineko ertzean egingo da, igotzeko erreiri atxikita (Arantzatzurako norabidean). Errepidearen plataforma zabaltzea planteatzen du, oinezkoentzako ibilbide bat ezartzeko (2 m-ko zabalera). Horretarako galtzadaren ardatzari utsiz, igotzeko erreiriaren (eskuineko erreia) zabalera 3.50 metrotik 3.00 metrora estutzen da. Eskuineko erreiriaren eta oinezkoentzako ibilbidearen artean, zintarri eten bat dago, 0.40 metrokoa, baliza bertikalekin tartekatzen dena.

17

Bigarren zatian (galtzada gurutzatzea eta jaisteko erreia). Zati hau galtzada gurutzatu, ermitako sarbidera eta ermitara eta hortik Azkoagainera arte doan sarbidera da. 2 metro zabaleko espaloia eraikitzen da. Gurutzatzeko tokian, zirkulazioa lasaitzeko eremua ezartzen da, erreiak estutu (3 m) eta Erdiko irlatxo bat tartekatuko da.

Proiektuak argiteria publikoa ezartzeko obra zibila barne hartzen du, hala ere, argiteria bera ez da proiektuan sartzen. EAJko ordezkariak aurrekontu gehikuntza egitea eta 2022an bere osotasunean proiektua exekutatzeko iritzia azaldu du.

Aipatutako lanak egiteko, Udalarenak ez diren lursailak okupatu behar dira.

Gaia aztertu ondoren, Zerbitzuak eta Landa Garapen Batzordeak honako erabakia har dezala eskatu dio Udal Osoko Bilkurari:

**LEHENENGOA.**- Sestrak aurkeztutako Gi-3591an OINEZKOENTZAKO BIDEAREN PROIEKTUA onartzea.

**BIGARRENA.**- Obra exekutatzeko beharrezkoa eta ezinbestekoa dela deklaratzeko, Sestrak aurkeztutako proiektuaren arabera, eta obra onura publikokoa dela deklaratzeko, desjabetze ondorioetarako.

**HIRUGARRENA.**- Titulartasuna lortzeko beharrezkotzat jotzen diren ondasun eta eskubideen eta horien titularren zerrendari hasierako onespena ematea, xehetasun hauekin:

**Partzela 1**

Jabea(k):

Desjabetzapena: 41 m<sup>2</sup>

Zortasuna: 0 m<sup>2</sup>

Aldi baterako lur-hartzea: 0 m<sup>2</sup>

Katastroko izaera: landalurra, 10. poligonoa eta 199. partzela

**Partzela 2**

Jabea(k): ████████████████████  
Desjabetzapena: 24 m2  
Zortasuna: 0 m2  
Aldi baterako lur-hartzea: 0 m2  
Katastroko izaera: hirilurra, 4863012 partzela

**Partzela 3**

Jabea(k): Italeiba S.L.  
Desjabetzapena: 113 m2  
Zortasuna: 0 m2  
Aldi baterako lur-hartzea: 0 m2  
Katastroko izaera: hirilurra, 4763008 partzela

LAUGARRENA.- Jendaurrean jartzeko eta entzunaldia egiteko epe bat irekitzea 20 egun balioduneko epean, GAOn iragarki bat argitaratuz, probintzian zabalkunde handiena duen egunkari bat, aipatutako jabe guztiei banan-banan jakinarazita.

Oñatin, 2021eko uztailearen 21ean.”

1954ko abenduaren 16ko Legea, nahitaezko desjabetzeari buruzkoa, honako hau xedatzen du:

9. artikulua:

“Nahitaezko desjabetzea egiteko, ezinbestekoa izango da alde zuzenetik deklarazioa desjabetutako objektuaren xedea onura publikokoa edo interes sozialekoa dela.”

15. artikulua:

“Herri-onura edo gizarte-interesa adierazi ondoren, desjabetzea gauzatzeko behar-beharrezkoak diren ondasunak okupatzeko edo eskubideak eskuratzeko premia zehatzari buruz ebaziko du Administrazioak.”

24. artikulua:

“Administrazioak eta desjabetzearen xede den partikularrak hitzartu ahal izango dute desjabetzearen xede diren ondasunak edo eskubideak libreki eta bi alderdiak ados jarrita eskuratzeko; kasu horretan, lagunarteko eskuraketaren baldintzak adostu ondoren, hasitako espedienteak amaitutzat emango da. Hamabost eguneko epean akordiorik lortzen ez bada, hurrengo artikuluetan ezartzen den prozedurari jarraituko zaio; hala ere, izapidetzearen ondorengo edozein egoeratan, bi alderdiek akordio hori lor dezakete.”

25. artikulua:

“Desjabetzeko moduko ondasunak okupatu edo eskubideak eskuratu beharra deklaratu duen erabakia irmoa denean, prezio zuzena zehatzuko da.”

26. artikulua:

“1. Bidezko prezioaren finkapena pieza banandu gisa izapidetuko da, desjabetu beharreko ondasun zehatzaren deskribapen zehatzaren buruan.

2. Horretarako, espediente indibidual bat irekiko zaio ondasun desjabetuari jabe bakoitzari. Espediente bakarra izango da desjabetzearen objektua hainbat pertsonaren erkidegokoa denean, edo hainbat ondasunek unitate ekonomiko bat osatzen dutenean.”

Azaldukoagatik, Zerbitzuak eta Landa Garapen batzordearen oniritziarekin, Osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

LEHENENGOA.- Sestrak aurkeztutako GI-3591an OINEZKOENTZAKO BIDEAREN PROIEKTUA onartzea.

BIGARRENA.- Obra exekutatu beharrezkoa eta ezinbestekoa dela deklaratu, Sestrak aurkeztutako proiektuaren arabera, eta obra onura publikokoa dela deklaratu, desjabetze ondorioetarako.

HIRUGARRENA.- Titulartasuna lortzeko beharrezkotzat jotzen diren ondasun eta eskubideen eta horien titularren zerrendari hasierako onespena ematea, xehetasun hauekin:

**Partzela 1**

Jabea(k): [REDACTED]  
 Desjabetzapena: 41 m<sup>2</sup>  
 Zortasuna: 0 m<sup>2</sup>  
 Aldi baterako lur-hartzea: 0 m<sup>2</sup>  
 Katastroko izaera: landalurra, 10. poligonoa eta 199. partzela

**Partzela 2**

Jabea(k): [REDACTED]  
 Desjabetzapena: 24 m<sup>2</sup>  
 Zortasuna: 0 m<sup>2</sup>  
 Aldi baterako lur-hartzea: 0 m<sup>2</sup>  
 Katastroko izaera: hirilurra, 4863012 partzela

**Partzela 3**

Jabea(k): Italeiba S.L.  
 Desjabetzapena: 113 m<sup>2</sup>  
 Zortasuna: 0 m<sup>2</sup>  
 Aldi baterako lur-hartzea: 0 m<sup>2</sup>  
 Katastroko izaera: hirilurra, 4763008 partzela

LAUGARRENA.- Jendaurrean jartzeko eta entzunaldia egiteko epe bat irekitzea 20 egun balioduneko epean, GAOn iragarki bat argitaratuz, probintzian zabalkunde handiena duen egunkari bat, aipatutako jabe guztiei banan-banan jakinarazita.

---

PARTE HARTZEKO TXANDA

PARTE-HARTZAILEAK:

Biaín jauna.  
 Elorza andrea.

---

Gaia aztertuta, eta Zerbitzuak eta Landa Garapen batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamasei bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

**9.- Hala badagokio, presako gaiak.**

Alkatearen eskariz, presazko bi gai gai-zerrendan sartzeko behar diren urratsak egin ondoren, hau da, gaia arrazoitzea (espedienteak deialdia egiterakoan ez zeuden oraindik prest eta premiazkoa da espediente horien erabaki bat hartzea) eta bertaratuen gehiengoaren botoa lortzea, gai hauek zerrendan sartzera erabaki da 16 boto aldekoekin (10 EH BILDU + 6 EAJ).

**9.1.-Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena: Interes bereziko obrak hartzea zerrendan adierazten diren eskatzaileen obrak, dagokion hobaria aplikatzeko, Ogasun batzordean diktaminatua 2021eko irailaren 21ean.**

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

**Gaia:** Interes bereziko obrak.

2021eko irailaren 21an egindako Ogasun batzordean aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamena, Ogasun Batzordeko idazkaria eta Kontu-hartzailea (Paskual Elustondo Darpon jauna), ziurtatzen duenez.

“3.- Interes Bereziko obrak

Hainbat herritarrek eskatu dute beren eraikinetan obra-baimenak. Aldi berean eskatu dute, 2021eko Zerga Ordenantzak xedatutakoaren arabera Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zergaren hobaria aplikatu ahal izateko,’ egin beharreko obrak interes berezikotzat edo udal onurakoak izenda daitezela.

Kontu-hartzaileak zera dio:

a) 2020ko Udal Zerga Ordenantzak EloZen hobar1en 3.puntuari zera dioela:

“3.-15/1989 Foru Arauren “Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga” V. Kapituluaren 5.a artikulua xedatutakoaren arabera, 100eko 95era bitarteko hobar1a, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.”

b) 2021-05-20 eta 2021-07-15eko Zerbitzuak eta Landa Garapen batzordetako aldeko irizpenak espedientean daude.

c) Kontu-hartzailearen iritziz, behean zerrendatzen diren eskatzaileen obrek betetzen dituzte Oñatiko Udaleko 2020ko Zerga-Ordenantzako EIOZ-ren obren hobarien 3. A) II i eta 3. A) II ii puntuetan jasotako baldintzak.

Ogasuna Batzordeak, ahobatez, honako aldeko irizpena igortzen dio Osoko Bilkurari:

Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea ondoren zerrendatzen diren eskatzaileen obrak. Ondorioz, zerrendan bertan adierazten den hobaria aplikatuko litzaieke:

20

IZENA	NAN	HELBIDEA	SARRERA	KONTZEPTUA	HOBARIA %
[REDACTED]		[REDACTED]	1746	Teilatua eraberritzea	%90
[REDACTED]		[REDACTED]	2324	Sukaldea eta komunak eraberritzea	%25
[REDACTED]		[REDACTED]	2385	Teilatua eraberritzea	%90
[REDACTED]		[REDACTED]	2350	Sarrera eraberritzea	%25

Eta hala jasota gera dadin ziurtagiri hau sinatzen dut, Ogasun Batzorde Informatzaileko Lehendakariaren oniritziarekin.“

Gaia azterturik, eta Ogasun batzordearen aldeko irizpena izanik, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

**LEHENENGOA.**- Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea ondoren zerrendatzen diren eskatzaileen obrak. Ondorioz, zerrendan bertan adierazten den hobaria aplikatuko litzaieke:

IZENA	NAN	HELBIDEA	SARRERA	KONTZEPTUA	HOBARIA %
[REDACTED]		[REDACTED]	1746	Teilatua eraberritzea	%90
[REDACTED]		[REDACTED]	2324	Sukaldea eta komunak eraberritzea	%25
[REDACTED]		[REDACTED]	2385	Teilatua eraberritzea	%90
[REDACTED]		[REDACTED]	2350	Sarrera eraberritzea	%25

**BIGARRENA.-** Erabaki hau interesdunei jakinaraztea.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hau kontu-hartzaileari jakinaraztea.

---

Gaia aztertuta eta Ogasun batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamasei bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

**9.2. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Urgain-Errekalde Herri Eskola. Ikastetxearen drenatze, hezetasun, segurtasun eta mugikortasun arazoak konpontzeko, 03-330 udal partzela Hezkuntza sailari afektatzea onartzea.**

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du:

2021eko irailaren 23an egindako Tokiko Gobernu batzordean, honakoa adostu zuen:

*“Lehenengoa.- Lur paisajistak enpresak 2019 urtean kanpoaldeko jolasgunea eraldatzeko gauzatutako aurreproiektua egokitzeko aurkeztutako 800€+BEZ aurrekontua onartzea eta gastua baimentzea.*

*Bigarrena.- Lur paisajistak enpresako Iñigo Segurola Arregui arkitekto paisajistak eta Jon Muñiz Elola arkitekto paisajistak, 2021eko irailaren 15ean sinatutako Oñatiko URGAIN-ERREKALDE herri eskola ikastetxearen kanpokaldeko jolasgunea eraberritzeko aurreproiektua onartzea, honako aurrekontua duena: 321.243,92€ (BEZ barne). Horrekin batera, proiektua gauzatzeko diru partida aurreikustea onartzea 2.022 urteko aurrekontuetan.*

*Hirugarrena.- Aurreproiektua Udalaguntza 2.021 dirulaguntza deialdira aurkeztea.*

*Laugarrena.- Obra 2.022 urtean gauzatzea onartzea, beti ere Udalaguntza 2021 dirulaguntza deialdiaren barruan Hezkuntza Sailak proiektua diruz laguntzea onartu eta %60ko dirulaguntza bermatzen badu.*

*Bostgarrena.- Erabaki hau kontu-hartzaileari eta teknikari sustatzaileari eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailari jakinaraztea.”*

Urgain-Errekalde Herri Eskolak aspalditik jasaten ditu lur azpiko erreka parez pare izatearen ondorioz sortzen diren hezetasun arazo larriak.

2.019ko maiatzean Lur paisajistak enpresak eraikinak jasaten dituen drenatze eta hezetasun arazoak konpondu eta lan hauek aprobetxatuz jolasgunea handitu eta eraberritzeko aurreproiektua landu zuela Udalaren eskariz. 2021 urtean enpresa berdinari aurreproiektu hori osatu dezan eskatu zaio

eraikinaren hezetasun eta drenaje arazoez gain segurtasunari eta mugikortasun jasangarriak sortutako beharrei erantzuteko helburuarekin.

Gauzatutako lanen helburu nagusia eraikinaren egitura aspalditik nabarmen kaltetzen ari ziren hezetasun arazo larriekin amaitzea zen. Gauzatutako aktuazioaren ondorioz filtrazio eta hezetasun arazoak neurri batean konpontzea lortu da, baina ez guztiz.

Egun mantentzen diren drenatze eta hezetasun arazoekin guztiz amaitzeko eraikinaren kanpoaldean ere aktuazioak egin beharra ezinbestekoa da.

Ikastetxe kanpoaldeko patio handian, ur putzuak sortzen dira batetik. Patioaren gaineko aldean dagoen belazetik, ur asko etortzen da eta urak ebakutzeko arazoak sortzen dira. Ikastetxeko patioa nahiz eraikin sarrera inguruak urez beteta egoten direlarik. Jolasgune nagusiari itsatsita dagoen eta malkartsua den udal jabetzako zelaiak ez du botatzen duen euri guztia xurgatzen, eta goitik behera etortzen da ur ugari. Patioaren inguruan dagoen asfaltoan pilatzen den urak, eskola barruko eremuetan ere eragina du. Kanpoko urak egoki kanalizatzeko neurriak hartzea ezinbestekoa da eraikinaren hezetasun arazoarekin behin betiko amaitzeko. Azpiegitura arazo hau konpontzeko, zelaitik hasi beharra dago beraz.

Udal jabetzako herri lur maldatsuan ezinbestean hezetasun arazoekin amaitzeko aktuazioa gauzatu behar denez, espazio hori ikastetxeko jolasgunean integratzeko neurriak ere proposatzen dira. 1805 m<sup>2</sup>ko berdegune maldatsua jolasgunean integratuko litzateke eta egungo jolasgune asfaltatuaren heren bat (905m<sup>2</sup>) gune misto bat sortzeko neurriak aurreikusten dira.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Udalaguntza 2.021 dirulaguntza deialdia argitaratu du. Deialdi honen bitartez diruz laguntzen dira Hezkuntza erabilera duten Udalaren jabetzako eraikinetan egindako inbertsio obrak. Urriaren 6ra arteko epea dago Udal jabetzako hezkuntza eraikinetan 2021eko urtarrilaren 1etik 2022ko abuztuaren 31ra bitartean hasiak beharko duten inbertsio lanetarako dirulaguntza eskaerak egiteko. Hezkuntza Sailak diruz laguntzea onartutako lanek aurrekontuaren %60ko dirulaguntza jasotzen dute.

22

2021eko irailaren 27an ateratako katastroko lurzati-zedularen arabera 3. poligonoan dagoen 330 partzela ezaugarri hauek ditu: Azalera osoa: 1.719 m<sup>2</sup>, katastro-balioa: 224,18€ eta xedea: belardia.

2021eko irailaren 27ko, Iñaki Akizu Agirre, Hezkuntza Teknikariaren txostena dago espedientean. Bertan, ondorioztatzen da: *“Lanak gauzatutakoan guztiz eraberritutako aisialdi gunea osatuko litzateke, bi partzelak irakaskuntza ekipamenduaren barne geratuko liratekeelarik. Horrela, Urgain Errekalde Herri Eskola kanpoaldeko jolasgunea eraberritzea aurreproiektuan aurreikusten den aisialdiko jolasgunearen zehaztasunak kontuan hartuta, ondorioztatzen da Larraña auzoko 03-330 partzela Hezkuntza sailari afektatu beharra dagoela. Horrekin batera Hezkuntza Sailarekin irailaren 24an izandako bileran jakinarazi zaigu Udalaguntza Hezkuntza Sailak argitaratutako dirulaguntza deialdietan obra finantzagarri izan dadin aurrebaldintza dela Larraña auzoa 03-330 partzela irakaskuntza ekipamenduaren parte izatea eta horrenbestez Hezkuntza Sailari afektatutako partzela izatea. Horretarako Udal Osoko bilkuraren akordioa ezinbestekoa da.”*

2021eko irailaren 27ko, Iñaki Landa Azkoaga, Hirigintza arduradunaren txostena dago espedientean. Bertan, ondorioztatzen da: *“Horrela, “Urgain Errekalde Herri Eskola kanpoaldeko jolasgunea eraberritzea” aurreproiektuan aurreikusten den aisialdiko jolasgunearen zehaztasunak kontuan hartuta, ondorioztatzen da erabilera pareagarria dela nekazaritza eta abelazkuntzako erreserbarako landa zonan baimendutako lorategi pribatua oinarritzko erabilerarekin eta landa pistak eta landa inguruneko aisia zerbitzu erabilerarekin. Era berean, bat egiten du I.7 H.G. Errekalde Eskolako gunearen zehaztapenekin. Hortaz, erabilerari dagokionean, ondorioztatzen da aurreikusitako aurreproiektuak bat egiten duela Hirigintza Arau Orokorren zehaztasunekin.”*

Hiri Ondasunen Udal Inbentarioaren Inbentario-Sastein programa informatikoan, honako higiezin hau agertzen da eta besteak beste datu hauek daude: Matrikula: 800197, Lege Kodea: 1.03.00.00 - Soberako higiezinak, Kontua: 2100 - Lursailak eta ondasun naturalak, Zerbitzua: Jabari publikoa. Erabilera publikoa. Errekalde bideak eta berdeguneak. Ezin izan da ziurtatu higiezin hori 330 partzelarekin bat datorren.

Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko **33/2003** Legearen 6. artikulua honako hau xedatzen du:

*"Administrazio publikoek printzipio hauen arabera kudeatu eta administratuko dituzte herri-jabariko ondasunak eta eskubideak:*

*A) Inorenduezintasuna, enbargaezintasuna eta preskribaezintasuna."*

Gainera, 33/2003 legeak, 71. Artikuluan (Toki-erakundeei modu osagarrian aplikagarria) honakoa xedatzen du:

*"1. Jabari publikoko aldaketa da Estatuaren Ondareko ondasun edo eskubide baten desfektazioa egiteko egintza, aldi berean Estatuko Administrazio Orokorren edo hari lotutako edo haren mendeko organismo publikoen beste erabilera orokor, xede edo zerbitzu publiko bati lotuta.*

*2. Jabari publikoko aldaketak berariaz egin beharko dira, hurrengo paragrafoan organoak berregituratzen diren kasuetarako aurreikusitakoa izan ezik."*

1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamendua onartzen duena, bere 8. artikulua dio:

*"1. Toki-erakundearen ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzeko, haien egokitasuna eta legezotasuna egiaztatzen duen espediente behar da.*

*2.- Dagokion toki-korporazioak hartutako erabakiaren bidez ebatzi beharko du espediente, hilabetez jendaurrean jarri ondoren, legezko kide-kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoarekin."*

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 47. artikulua honako hau xedatzen du:

*"2. Korporazioetako legezko kide-kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa behar da honako gai hauetan erabakiak hartzeko:*

*n) Herri-jabariko ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzea."*

Azaldutakoagatik, Osoko Bilkurari honako hau proposatzen diot:

**Lehenengoa.**- Larraña auzoko Oñati Udaleko 03 poligonoa 330 partzela irakaskuntza ekipamenduaren parte izatea eta horrenbestez Hezkuntza Sailari afektatutako partzela hasiera batean onartzea.

**Bigarrena.**- Erabaki hau eta espediente jendaurrean jartzea, gutxienez hilabetez, iragarkia udaletxeko iragarki-taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta. Epe horretan interesdunek aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak egin ahal izan ditzakete. Espedienteari erreklamazioak aurkezten bazaizkio, osoko bilkurak berariaz ebatzi beharko ditu ahalik eta eperik laburrenean.

**Hirugarrena.**- Lehen adierazitako epea amaitu ondoren espedienteari erreklamaziorik aurkezten ez bazaizkio, ordura arte behin-behinekoa zen erabakia behin betiko bihurtuko da, osoko bilkuraren beste erabakirik hartu beharrik gabe.

**Laugarrena.**- Afektazioak ondasuna jabari publikoan integratzea dakar eta hezkuntza zerbitzu publikoari lotuta.

**Bostgarrena.**- Udal-inbentarioa zuzentzea, hezkuntzako zerbitzu publikoari lotuta dagoela jasota gera dadin, eta inguruabar hori deskribatzen duen fitxa Idazkaritza Nagusira bidaltzea, zuzenketa hori Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamenduaren 33. artikuluan aipatzen den urteko zuzenketa sartzeko.

**Seigarrena.**- Erabaki hau teknikari sustatzaileari eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailari jakinaraztea.

**Zazpigarrena.**- Alkate-udalburuari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten era guztietako agiriak izenpetu eta sinatzeko.

---  
PARTE HARTZEKO TXANDA

PARTE-HARTZAILEAK:

Galdos andrea.  
Kortabarria andrea.  
Galdos andrea.

---

Gaia aztertuta, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamasei bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

**10.- Hala badagokio, larrialdi-mozioak.**

Ez dira aurkeztu.

**11.- Uztailaren 19tik irailaren 22a bitartean eman diren alkate dekretuen berri ematea, 785 zenbakitik 953 zenbakira.**

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

---  
PARTE HARTZEKO TXANDA

PARTE-HARTZAILEAK:

Biaín jauna.  
Galdos andrea.  
Iraeta jauna.

24

**12.- Galderak eta eskaerak.**

Ez daude.

Oligopolio elektriko egoerari buruzko eztabaida bat suertatzen da:

PARTE-HARTZAILEAK:

Igartua jauna.  
Galdos andrea.

Besterik ezean, 19:05ak zirenean, Alkateak amaitutzat jo zuen bilkura, eta esandakoak jasota gera daitezen egin dut agiri hau Alkatearen ontzat emanarekin.

O.E

Alkateak

Idazkaria

Izaro Elorza Arregui

Iñigo Roldan Catalan